

OSASUN-ZAINTZAN BAIMENA EMATEKO INFORMAZIOA

Osalan sortzeari buruzko Legean (abenduaren 21eko 7/1993) eta uztailaren 27ko 306/1999 Dekretuan (Prebentzioko zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduera sanitarioak arautzen dituen) ezarritakoarekin bat etorritik, Osalanen lan-osasuneko unitatea organo eskuduna da osasun-agintari gisa jarduteko osasun-zerbitzuekin, osasun-langileekin, osasun-jardueren azpikontratazioarekin eta jarduera horietarako kanpoko prebentzio-zerbitzuen arteko lankidetzaz hitzarmenekin lotutako guztian.

OSASUN-ZAINTZAN BAIMENA EMATEKO AURRETIKO BETEKIZUNAK

Osasun-zaintzarako langilea esleituta duen enpresa:

Osasun-zaintzarako langilea esleituta duen enpresa batek enpresako langileen osasun-zaintzaren funtzioak garatzeko aukera izan aurretik, honakoak egin behar ditu:

- a) Enpresariak enpresan osasun-zaintzako funtzioak beteko dituzten langileak izendatu beharko ditu. Gutxienez bi pertsona izan beharko dira eta derrigorrezko titulazioa eduki beharko dute.
- b) Lan-agintariei prebentzioko antolaketa-modalitatea jakinarazi beharko diete. Euskadiko Autonomia Erkidegoan OS-2 ereduaren bidez. Jakinarazpen horretan agerrarazi behar da hautatutako prebentzio-modalitatea izendatutako langilea dela, eta osasun-zaintza sartu beharko da hautatutako espezialitateen artean. Gutxienez bi pertsona izan beharko dira izendatuak. Batek laneko medikuntzako mediku espezialista izan beharko du edo enpresa-medikuntza diplomaduna, eta, besteak, laneko erizaintzako erizain espezialista edo enpresako erizaintzan diplomaduna, eta, horrela, Oinarrizko Osasun Unitatea (OOU) osatuko dute.
- c) Gutxienez, osasun-agintariak baimendutako eta erregistratutako osasun-zerbitzu bat eduki beharko da.

Berezko prebentzio-zerbitzua eta mankomunatua:

Berezko prebentzio-zerbitzu batek edo mankomunatu batek langileen osasun-zaintzaren funtzioak betetzeko aukera eduki aurretik, honako hauek egin behar ditu:

- a) Hala eratu izana eta erabakiaren berri lan-agintaritzari eman izana. Euskadiko Autonomia Erkidegoan OS-2 ereduaren bidez. Jakinarazpen horrek hautatutako espezialitateen arteko zaintza jaso behar du.
- b) Gutxienez, Oinarrizko Osasun Unitate (OOU) bat izatea, bi pertsonek eratua: batek laneko medikuntzako mediku espezialista izan beharko du edo enpresa-medikuntzan diplomaduna, eta, besteak, laneko erizaintzako erizain espezialista edo enpresako erizaintzan diplomaduna.

- c) Gutxienez, osasun-agintariak baimendutako eta erregistratutako osasun-zerbitzu bat eduki beharko da.

Kanpoko prebentzio-zerbitzua:

Kanpoko prebentzio-zerbitzu batek langileen osasun-zaintzako funtzioak egiteko aukera eduki aurretik, honako hauek egin beharko ditu:

- a) Lan-agintariaren egiaztapena eskuratu beharko du kanpoko prebentzio-zerbitzu gisa jarduteko.
- b) Gutxienez, Oinarrizko Osasun Unitate (OOU) bat izatea, bi pertsonak eratua: batek laneko medikuntzako mediku espezialista izan beharko du edo enpresa-medikuntzan diplomaduna, eta, besteak, laneko erizaintzako erizain espezialista edo enpresako erizaintzan diplomaduna.
- c) Gutxienez, osasun-agintariak baimendutako eta erregistratutako osasun-zerbitzu bat eduki beharko da.

ERANTSI BEHARREKO INPRIMAKIAK ETA DOKUMENTAZIOA

Osasuna zaintzeko baimenetarako, dagokion inprimakia bete behar da, eta kasu bakoitzean beharrezkoa den dokumentazioa erantsi.

Osasun-zaintzaren arloko baimen-eskaera:

Eskaera-inprimakia, behar bezala beteta, honako dokumentazio honekin batera:

Osasun-zerbitzuarekin lotuta:

1. Langileen osasun-zaintzarako instalazioen planoak.
2. Dauden ekipo eta artxibo-materiala deskribatzen dituen dokumentua, osasun-zaintzatik bideratutako langileen datu pertsonalen konfidentziasuna bermatzen duten zaintza-sistemekin batera.
3. Lotutako enpresetan lehen sorospentarako eta langileak ebakutzeko eta lekualdatzeko aurreikusitako jarduketa-mekanismoekin lotuta bete beharreko prozedurak eta gaitasunak deskribatzen dituen jarduketa-protokoloa.
4. Instalazioen erabilera eteteko kontratua, lagatako edo alokatutako lokalen kasuan, lokalaren jabeak eta prebentzio-zerbitzuko arduradunak sinatuta.
5. Berritzeak egon badira, aldaketei dagokien dokumentazioa baino ez da aurkeztuko.

Langileekin lotuta:

1. Osasun-langile guztien titulazioen jatorrizko fotokopia konpultsatua.
2. Tc-2aren fotokopia; bertan, eskaeraren egunean plantillan atxikita dauden langile guztiak agertu beharko dira
3. Osasun-langileen kontratuen fotokopiak, enplegu-sozietate publikoak zigilatuta.

4. Ordutegi- eta lan-bateraezintasunik ez dagoela adierazteko deklarazio pertsonala, honako inprimaki hauetan:
 - I. eranskinaren inprimakia, osasun-zaintzarako langileak esleituta dituzten berezko eta mankomunatatuko prebentzio-zerbitzuetarako eta enpresetako prebentzio-zerbitzuetarako (I. ERANSKINA-BPZ-PZM-LE)
 - II. eranskinaren inprimakia, kanpoko prebentzio-zerbitzuetarako (II. ERANSKINA-KPZ)
5. Zerbitzuko osasuneko profesional bakoitzeko, lan-ordutegia zehaztuko da honako inprimaki hauetan:
 - Mediku langileen inprimakia. “ML EREDUA” izeneko dokumentua.
 - Erizain langileen inprimakia. “EL EREDUA” izeneko dokumentua.

Osasun-langileen aldaketa, kargua uzteagatik edo altagatik:

Osasun-langile berri bakoitza sartzeagatik edo kargua uzteagatik, langileen aldaketa-eskaera izeneko inprimakia erantsiko da. Langile berri bat sartzen den bakoitzean, honako dokumentazio hau erantsiko da:

1. Osasun-langile guztien titulazioen jatorrizko fotokopia konpultsatua.
2. Osasun-langileen lan-kontratuaren fotokopia, enplegu-sozietate publikoak zigilatuta.
3. Osasun-langile berrien Tc-2aren fotokopia.
4. Lan-ordutegia ML edo EL EREDUA izeneko inprimakian, dagokionaren arabera.
5. Ordutegi- eta lan-bateraezintasunik ez dagoela adierazten duen banako deklarazioa. I. ERANSKINA-BPZ-PZM-LE edo II. ERANSKINA-KPZ inprimakia, dagokionaren arabera.

Hitzartutako jarduera eta ekipamenduarekin lotuta:

1. Audiometroak neurketak “sonometroei” buruzko UNE – EN 60651:1996 eta “sonometro integratzaile-promediatzaileei” buruzko UNE – EN 60804:1996 arauen arabera egiten dituela egiaztatzen duen dokumentua
2. Analisi klinikoetarako laborategiarekin egindako hitzarmenaren, hitzartutako zentroaren indarreko osasun-administrazioko baimenaren eta hitzartutako zentroaren kalitate-kontrolaren fotokopia.
3. Hitzartutako errediodiagnostikoko hitzarmenaren, osasun-administrazioko baimenaren eta zentroko zerbitzu nuklearreko batzordearen indarreko baimenaren fotokopia.
4. Hondakin sanitarioak biltzeko enpresa batekin sinatutako hitzarmenaren eta hondakin sanitarioen ekoizleen erregistroan inskribatuta egotea ziurtatzen duen agiriaren fotokopia.
5. Berritzeak egon badira, aldaketei dagokien dokumentazioa baino ez da aurkeztuko.

Oinarrizko osasun-unitateak (OOU) barne hartzen dituen lan-enpresak eta -zentroak:

“Estaldura” izeneko Excel dokumentuan bete beharko du inprimakia. Dokumentu horretan, osasun-zaintzan sartzen diren enpresen, lan-zentroen eta langileen datuak agertzen dira, honako kasu hauetan:

- Osasun-zerbitzu mugigarria denean.
- Aurretik jakinarazi ez diren enpresak sartzen direnean.

Lankidetzeta-hitzarmenetan jasotako enpresen eta lan-zentroen zerrenda:

Lankidetzeta-hitzarmenak sinatzen dituzten kanpoko prebentzio-zerbitzuek “Lankidetzeta-hitzarmena enprekin” Excel dokumentuko inprimakia bete beharko dute. Orri bat beteko da sinatutako lankidetzeta-hitzarmen bakoitzeko.

Bestelako informazioa nahi izanez gero, eta eskabide eta dokumentazioaren entrega formalizatzeko, Osalanen lan-osasuneko lurralde-unitate egokira jo beharko da:

Araban: Jose Atxotegi kalea 1 – 01009 Gasteiz

Telefonoa: 945.016.826 – Helbide elektronikoa: osalansl03ga@euskadi.eus

Bizkaian: Dinamita bidea z.g. – 48903 Barakaldo

Telefono-zenbakiak: 944.032.164 - 944.032.102

Helbide elektronikoak: osalansl12ba@euskadi.eus – osalansl02ba@euskadi.eus

Gipuzkoan: Maldatxo Bidea z.g., 20012 Donostia.

Telefonoa: 943.023.271 - Helbide elektronikoa: @euskadi.eus